

IZOTZ HOCKEYA



Gasteiz taldea.

Tadek poloniarra fitxatu du Gasteiz izotz-hockey taldeak

IJES KARLOS GARCIA / GASTEIZ

Gasteiz izotz-hockey taldeak fitxatu berri duen bigarren atzerritarra, Rylko Tadek poloniarra, Gasteiza iritsi daiteke gaur bertan. Asteaz zehar bihurtu lortzeko arazo handiak izan ditu, taldeko agintariek Poloniako enbaxadorekin egin dituzten ahaleginak etengabeak izan arren. Toni Vera Gasteiz taldeko lehendakariak atzo baieztatu zigunez, «oso posiblea da ostegunean heltzea» eta larubatean Barcelonaren aurrean jokatu behar duten partiduan nola edo hala egotea da Gasteiz-ek adierazten duen nahia.

Rylko Tadek «pistako edozein tokitan joka dezakeen gizona da» Veraren iritziz. Orain egun batzuz Gasteiz-ek talderatu zuen Wronka Adam eta Tadek bera Novitar talde poloniarrean ibili ziren Euskal Herria etorri baino lehen. «Hortaz, ederki jokatu ahal izango dute, elkarren arteko ezagutza dute eta. Wronka Adam-ek sar ditzakeen goletarako paseak ematerakoan jokalaririk ibilia da Tadek», argitzen dute taldeak.

Gogoratu behar da Gasteiz izotz-hockey taldeak bi jokalaririk txekoslovakiarrarekin harremanak izan dituela azken asteotan Tadek-ekin kontratua itxi baino lehen. Dena den, emaitza garbirik ezean, poloniarrekin sinatu zuten, Toni Verak dioen bezala «txapelketa aurreratuegia bait zegoen gehiago itxoiteko».

BIHARKO ARERIOA BARCELONA Erabakikorra» da taldearen ustez bihar arratsaldeko 7etan Barcelonaren aurka Gasteizek jokatuko duen partida. Gasteiztarrek kataluniarrek baino bi puntu gutxiago dute, Boadillarekin Gasteiz-ek jokatu behar duenaz gainera. «Hormexegatik, Tadek-ekin kontatu nahi dugu Barcelonari irabazi ahal izateko, batez ere azken partidutik geroz kan lesioak behin gaindituz gero».

Transeuropa Txuri Urdeinek berri, lidergoari eusteko partidu garantzitsua jokatuko du gaur gabean Jacan. Donostiarrak talde buru dira mementu honetan, eta Jaca bigarren postuan dago puntu bakar batera. Gaur irabaziz gero, bigarren fasea oso ondo jarriko litzateke donostiarentzat.

PILOTA

Pilota jolasa ere badela erakutsi eta zaletasuna bultzatzeko ideia

Loiola eta Astigarragan asteazkeneko partiduak eta berreneak

Pilotarien inizatibaz, eta pilota-jokoa jolas bihurtu nahian, entrenamenduak ikusleei zabalduko dizkiete Loiola eta Astigarragako frontoietan, nahi duten guztiak parte hartzera bultzatuz. Bertan entrenatu ohi duten pilotariek haur, heldu eta zaharrek pilota zaletasuna berreskuratzeko helburua eta ilusioa besterik ez dute.


XABIN MAKAZAGA / DONOSTIA

Loiolan entrenamendu saioa egin eta Astigarragako sagardotegiren batera joateko ohitura dute han entrenatzen duten pilotariek. Bi gune hauen inguruan sortu da pilota zaletasuna bultzatzea beste helbururik ez duen proiektua. Entrenamenduak jolas bihurtu nahi dituzte Unsain, Arteaga, Salbidea, Lazkano, Aldazabal I eta konpainiak, interesa duen guztiari parte hartzeko gonbitea lutzatuz.

Horretarako, lehiaketa kutsua kendu eta hiru txapelketa mota antolatuz dituzte: haurrentzakoa, helduentzakoa eta 'barrene' saioa, zaletu guztiei zabaldua. Pilotaren arauak galdu gabe, berrikuntzak egin dituzte, jokoa atseginago bihurtzeko asmoarekin.

Unsain enpresari batekin mintzatu zen, proposamena azaldu eta honen oneritzia jasotzeko asmoarekin. Itxuraz ordea enpresariak ez du ideiarene mamia ulertu, eta eragozpenak jarri ditu jolas hauek egiteko. Unsainek adierazi digunez, «zail gertatu zait ulertaraztea, pilota zaletasuna bultzatzea besterik ez dugula nahi. Enpresaren partiduei ikusleak kenduko dizkiola horrelako zerbaitek... Asteartean enpresari guztiekin bilera egiteko geratu gara».

Pilotaren onerako izango da Loiola eta Astigarragako inizatiba, eta ez litzateke batere txarra beste herrietara ere horrelako zerbaitez.



Gazte zein helduengan zaletasuna bultzatu nahi dute pilotariek.

Karteldegia

Gaurko partiduak

MUNGIA. 17.00. Bergara II - Errandonea / Alustiza - Tolosa. Arteaga - Salbidea / Ariznabarreta - Gorostiza.

BERGARA. 16.30. Zabala / Loiarte. Alustiza - Errasti / Arteaga - Martinekorena.

Biharko partiduak

GALARRETA. 16.00. Larra-ñaga - Zestau II / Oyo - Urretabizkaia II. Intxauburu - Mujika / Gorriz - Agerre. Salaberria - Ezkurdia / Guenbe - Izagirre. Altuna - Orbegozo / M. Lekunberri - Aranburu II.

EUSKAL. 16.00. Arroyo - Zandio / Egialde - Ekiza. Elizalde - Aizpuru / Matxin - A. Lekunberri. Aseginolaza - Barrenetxea / Noain - Etxeberria. Urrutia - Lizaso / Lezea - Iturralde.

DEPORTIVO. 16.30. Agirre - Sanchez / Garma - Aya Zulaika. Iturzaeta - Izagirre / Isusi II - Goldarazena. Ipiña - Otero / Alustiza - Torre. Landea - Otxandio / Lekue - Astola.

MUTRIKU. 16.30. Goñi - Tolosa / Gorostidi - Urretabizkaia. Lazkano - Zubizarreta / Galzakorta - Larrabal. Mateo / Galardi.

Asteazkeneko jokatuko dute, Loiola eta Astigarragako frontoietan txandaka. Haurren taldeak hiru jokalariz osatuko dira, lau t'erdia berruan. Buruz buru bi partidu jokatuko dituzte, eta bat banaka, zortzi tantora bakoitza. Nagusien txapelketarako bikoteak osatu dituzte, aldaketarik izatea gerta daitekeen arren. Arteaga-Goikoetxea, Kalonge-Salbidea, Lazkano-Aldazabal I, Pierola-Unsain, Mujika-Soroa eta Txoperena-Oiarzabal lau t'erdian eta frontoi osoan arituko dira, 3. partidua erabakitzeke zozketa eginez. Haurrek binaka jokatzen dutenean aurrelariak eta atzelariak saka tartekatuko dute, tantoa lortzen duten guztietan.

TENISA

Australiako laugarren ihardunaldian ez zen ezusterik egon

MELBOURNE

Australiako Irekiaren laugarren ihardunaldian ere ez zen ezusterik egon. Zerrenda buru guztiek, Monica Seles eta Katerina Maleeva emakumezkoetan eta Stefan Edberg, Goran Ivanisevic eta Jim Courierrek gizonzkoetan aurrera egin zuten.

Edberg 6-1, 6-2 eta 6-3ko emaitzaz zailtasun handirik gabe gainditu zuen Eduardo Masso belgiarra. Goran Ivanisevicek ordea,

espero baino lana gehiago egin behar izan zuen Ramesh Krishna hindua gainditzeko. Jugoslaviarrak bost set erabili behar izan zituen: 6-4, 3-6, 4-6, 6-1 eta 6-2.

Ikusle serbiar eta Kroazioen artean armailetan egondako borroken ostean urduri agertzen da Ivanisevic, bera ere kroaziarra bait da. Australiako Irekian diharduten gainontzeko jokalariek, Golkoko gerratik Melbournea heltzen diren albeistengatik urduri daudela azaldu dute.



Monica Seles.

LABURREAN

GASCOIGNEK

Maradona ordezkaturko du datorren urtean

Tottenham Hotspurs taldeko Paul Gascoigne erdilarik Maradonaren lekua beteko du datorren urtean Napoles taldean Italiako komunikabideek aditzera eman dutenez. Mardonak futbola utzi behar zuela azaldu zuenetik, Napoleseko zuzendariak atzerritar berri baten bila dabilta. Abertino Bigo entrenatzaileak ez zuen albiseta baieztatu nahi izan, baina atzerritar bat aukeratu behar izanez gero, Gascoigne hautatuko zuela adierazi zuen. Tottenhamek ordea ez du Lineker eta Gascoigne saltzeko asmorik ●

GOLKOKO krisiak

eragin nabaria du kirol munduan

Golkoko gerrak eragin nabaria izan du kirolean. Argelian gaur eta bihar jokatu behar ziren futbol partidu guztiak bertan behera geratu dira, Israeleko taldeek etxetik kanpo jokatu behar dituzte saskibalo partiduak, Estatu Batuetako kirolariak gerrara deituko ote dituzten zai daude.... Estatu Batuetatik kanpo diharduten kirolari amerikarrek berriz, atentatuak jasango dituzten beldur dira. Munduko Eski Txapelketa jonatzen ari zen talde amerikarra Estatu Batuetarab ueltatu da jadanik ●

BEN JOHNSONEK

bigarren proba korrituko du bihar

Kanadiarrak zigorraren ondorengo bigarren proba korrituko du gaur goizaldean Los Angeleseko Sports Arena aretoan. Johnsonek oraingo honetan ez duela huts egingo adierazi du. Etxetik kanpo korritzeak, presio gutxiago sortaraziko diola uste du Johnsonek. Guztira, hamar mila ikusle eta berrehun eta berrogehitamar kazetari izango dira kanadiarraren bigarren saio hau ikusten. Ben Johnsonek ezin du gaurkoan ere huts egin ●

OLARRONDO USURBIL

Tfnoa. 361346 - 365817
OSPAA EZAZU SAN SEBASTIAN EGUNA GUREKIN
 Urdailazpiko iberikoa Zainzuriak
 Langostino erreak
 Itsas-sapo erreka
 Idi txuleta
 Postrea eta kafea
3000 pezeta.
ERRETSEBAK BAKARRIK